

BILBOKO ITSAS MUSEOA I. KOMIKI LEHIAKETA

Oinarri hauen arabera Bilboko Itsasadarra Itsas Museoak I. komiki lehiaketa aurkezten du:

1.- Xedea:

Deialdi honen helburua Bilboko Itsasadarra Itsas Museoaren I. komiki lehiaketaren arauak ezartzea da.

2.- Parte hartzaileak:

Lehiaketa honetan 6 urtetik gorako pertsona guztie zuzenduta dago. Pertsona bakoitzak gehienez 3 lan aurkeztu ahal ditu.

Lanen egileak banaka edo taldeka aurkeztu ahal dira. Taldeka izanez gero, pertsona bakoitzaren ehuneko parte hartzea adierazi beharko litzateke. Ez bada ezer adierazten, sariak banatzerakoan, parte hartzaile guztiak ehuneko berdina izango dute.

3.- Gaia eta formatua:

Gaia itsasoari buruz eta Bilboko Itsas Museoarekin erlazionatuta egon beharko da: Bizkaiko Golkoa, Karola garabia, Euskalduna ontziolak, Bilboko Itsasadarra, Bilboko Portua, Bilboko Kontsulatua, zirgariak, zamaketariak, sardinerak, euskal piratak, euskal marinela: J.S. Elkano, Andrés de Urdaneta, José Luis de Ugarte,...

Komikiaren pertsonaiak originalak, argitaratu gabekoak eta sorkuntza berezkoak izango dira.

Lehiaketan parte hartuko duten lanak originalak izan behar dira, teknika librean egindakoak, baita informatikako teknikekin egindako lanak ere. Ez dira onartuko kopiak edo beste lehiaketetan partu hartu duten edo saridunak izan diren lanak.

Lanak 3 orrialde (gutxienez) eta 8 orrialde (gehienez) izango dituzte, zenbakituta, modu egokian errotulatuta, DIN A-4 tamaina eta formatu bertikalean. Lanak, zuri-beltzean edo kolorean, izenburu batekin, sinadurarik gabe, markoztatu gabe eta azetato edo tipula-papera batean babestuta aurkeztuko dira.

4.- Mailak:

3 maila daude:

- a) 6-12 urte
- b) 12-18 urte
- c) Helduak (>18 urte)

5.- Hizkuntza:

Lanak euskaraz edo gazteleraz aurkeztu daitezke. Komiki mutuak ere izan daitezke.



bilboko itsasadarra itsas museoa
museo marítimo ría de bilbao

6.- Lanen aurkezpena:

Lanak zuri-beltzean edo kolorean aurkeztu daitezke, egilearen edo egileen izena ez da ikusgai egongo eta pertsonalki edo postaz Bilboko Itsas Museoan aurkeztuko dira, gutun baten barruan, markoztatu gabe, sinadurarik eta izenik gabe, goiburu edo izenburu batekin. Gutunaren barnean, beste gutun txiki bat egongo da lanaren izenburuarekin eta egilearen edo egileen datu hauekin: izen-abizenak, telefonoa, jaiotze-data, posta helbide osoa eta posta elektronikoa, NAN-ren (nortasun-agiri-nazionalaren) fotokopia baten ondoan.

Aurkezpenaren lekua eta data:

Lanak paperean aurkeztuko dira, pertsonalki edo posta arruntaren bidez, honako helbide honetan:

BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA

Ramón de la Sota Kaia,1

48013 Bilbo (Bizkaia)

Lanak aurkezteko epea 2019ko otsailaren 22an bukatuko da eguerdiko 12:00etan, Bilboko Itsas Museoan.

7.- Lanen erakusketa eta jabetza:

Epaimahaiak lan irabazleak aukeratuko ditu. Irabazleak diren lanak Museoko erakusketa batean ikusgai egongo dira.

Erakusketa hau bukatu eta 30 egun barru egileek beraien lanak berreskuratu ahal izango dituzte, horrela nahi izanez gero.

Lan original guztiak egileen jabetza izango dute. Komiki irabazleek Itsas Museoaren jabetza izango dute (honek ez du esan nahi egileek jabetza intelektuala galduko dutenik). Itsas Museoak komiki irabazleak argitaratzeko edo erabiltzeko baimena izango duela esan nahi du soilik, beti ere egileen izena adieraziz.

Lanen egileen erantzunkizuna izango da beti edozein plagio edo egileen eskubideen erreklamazioak.

8. Sariak:

a) 6-12 urte: Museoko 4 sarrera + 80€ko opari-txartela Elkarren (komikiak) + 4 pertsonentzako opari-txartela kayak edo SUP (Stand Up Paddle) Bilboko Itsasadarrean zehar Bilbobenturarekin (adingabekoak heldu batekin behintzat). www.bilbobentura.com + Belakluba (urrunik gidatutako RC belaontziak): urte bateko bazkide kuota eta hastapen klase berezi bat. www.belakluba.eus)

b) 12-18 urte: Museoko 4 sarrera + 80€ko opari-txartela Elkarren (komikiak) + 5 pertsonentzako opari-txartela Escape Room Titanic. <http://laberintum.com/> + Belakluba (urrunik gidatutako RC belaontziak): urte bateko bazkide kuota eta hastapen klase berezi bat. www.belakluba.eus)



bilboko itsasadarra itsas museo
museo marítimo ría de bilbao

c) Helduak (>18 urte): Museoko 4 sarrera + 80€ko opari-txartela Elkarren (komikiak) + 2 pertsonentzako opari-txartela zetazeoak ikustera joateko Santurtzitik Gorka Ociorekin. www.verballenas.com + 1.000€

d) Euskarazko lanik onena: Museoko 4 sarrera + 80€ko opari-txartela Elkarren (euskarazko komikiak) + 4 pertsonentzako opari-txartela kayak edo SUP (Stand Up Paddle) Bilboko Itsasadarrean zehar Bilbobenturarekin (adingabekoak heldu batekin behintzat). www.bilbobentura.com

e) Komikirik sormenena, didaktikoa eta originalena: Museoko 4 sarrera + 80€ko opari-txartela Elkarren (komikiak) + 5 pertsonentzako opari-txartela Escape Room Titanic. <http://laberintum.com/>

Lehiaketa honen sariak dagokien legegintza fiskalaren barne daude. Helduen (>18 urte) mailaren sariaren 1000€ren ordainketa banku transferentziaren bidez egingo da. Horretarako irabazleak edo irabazleek beraien NANaren fotokopia eta bankuaren kontu zenbakia aurkeztu beharko dute Bilboko Itsas Museoa.

Epaimahaiaren ustez aurkeztutako lanak kalitate nahikorik ez badute, lehiaketaren sariak hutsik geratu daitezke.

Sarien banaketa erakusketaren inaugurazioaren egunean izango da eta irabazle guztiak bertan egon beharko dira, egoera justifikaturen bat izan ezik.

9. Epaimahaia:

2019ko martxoaren 1ean, ostiralean, Museoko epaimahai batek saritutako lanak aukeratuko ditu. Museoko epaimahaiak saritutako lanak aukeratzeko irizpide hauek jarraituko ditu: gaia (Museoaren erlazioatuta), sormena, eduki didaktikoa, originaltasuna eta kalitate artistikoa.

Irabazleen izenak Museoko webgunean argitaratuko dira eta egun berean Museoak irabazleekin kontaktuan jarriko da.

Epaimahaiaren ustez aurkeztutako lanak kalitate nahikorik ez badute, lehiaketaren sariak hutsik geratu daitezke.

10. Beste zehaztapenak:

Lehiaketa honetan parte hartzeak lehiaketaren oinarri guztiak onartzen direla esan nahi du. Egokia irudituz gero, Museoak, antolatzaile bezala, lehiaketaren funtzionamendu on baterako edozein aldaketa ezarri dezake. Bilboko Itsas Museoak aurkeztutako lanak erabat zainduko ditu, baina ez du lanen osotasunaren erantzunkizuna hartuko.

Lehiaketa honen informazio gehiago hemen:

Tel. 946085500 / info@museomaritimobilbao.org / www.museomaritimobilbao.eus



bilboko itsasadarra itsas museoa
museo marítimo ría de bilbao

* Zure datu pertsonalen tratamendua, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Europako Parlamentua eta Kontseiluko araudiaren arabera.

ARDURADUNA
BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA
CIF: G48891725
Helbide soziala: Ramón de la Sota Kaia, 1, 48013 Bilbo
Telefonoa: 94 608 55 00
Posta elektronikoa: lopd@museomaritimobilbao.org

“Erakunde honen izenean ematen diguzun informazio guztia soilik lehiaketaren emaitzak komunikatzeko erabiliko dela ziurtatzen dizugu. Emandako datuak lehiaketa honetan parte hartzen duzun denboran zehar mantenduko dira. Datu hauek ez dira Museotik kanpo aterako, betebeharrak ez bada. Edozein momentutan BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOAN zure datuak baieztatu, zuzendu gaizki egonez gero edo bertan behera utzi nahi badituzu zure eskubide guztian zaudelaren berri ematen dizugu”.



bilboko itsasadarra itsas museoa
museo marítimo ría de bilbao